

Caroline Phillips eta
Mixel Ducau bihar
gauean ariko dira
plaza Berrian ▶ 2



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2005-07-07 ▶ III. urtea ▶ 653. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Alegiako gaztetxo antzezpenak etzi zineman

LANAK ▶ Eskolako ikasleek
'Martin txiki eta jentilak' eta 'Ama
begira zazu' eskainiko dituzte

HELBURUA ▶ Antzerkiarekiko piztu
zaien grina «bultzatzea» dute
helburu gurasoek eta irakasleek ▶ 5



Antzerki taldeko gaztetxoak atzoko entseguan. NOELIA LATABURU



JULEN GOIKOETXEA

Hasi dira Alde Zaharreko sanferminak

TOLOSA ▶ Txupinazoan jende asko elkartu zen atzo; jaiak bukatzeko,
buruhandiak, entzierroa eta 'Pobre de mi' izango dira gaur ▶ 3

IRURA ▶

**Garagardo
azokarekin
«oso
gustura»**

«Parte-hartzearekin
eta ekonomikoki» ▶ 4

JOSEBA URKIOLA ▶ KARRAPE IRRATIKO ESATARIA

**«Antenan sartuta,
momentuak asko
inposatzen du»**

Uda honetan esatari gisa ariko da
Karrape Irratian kazetaritza ikaslea ▶ 7



JAIONE ASTIBIA

BELAUNTZA ▶

**Sustraiak
plataformari
erantzun dio
alkateak**

Probokazioak jasan
dituztela dio ▶ 6

GAU GIRO ▶

Bidaia, bertakoaz gozatu eta kanpokoak ezagutzeko

Caroline Phillipsek eta Mixel Ducauk, Bidaia bikoteak, kontzertua eskainiko dute bihar Plaza Berrian (22:30)

LEIRE MONTES

«Euskal Herrikoa bezain unibertsala». Halakoxea da Caroline Phillipsek eta Mixel Ducauk, Bidaia bikoteak, Tolosara ekarriko duten musika. Gau Giroko egitarauaren baitan, kontzertua eskainiko dute, bihar, 22:30ean, Plaza Berrian. Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eta Udalak hasitako elkarlan bidearen fruitu ere bada emanaldia.

«Euskal Herriko dantzen doinuetan» du inspirazio iturri Bidaia bikotearen musikak. Baina «munduko folkloreekin aberastutakoa» da, era berean. Guztietan barrena bidaiatzeko parada eskaintzen dute Caroline Phillipsek eta Mixel Ducauk. Bertakoaz gozatu eta kanpokoak ezagutzeko.

Hala, euskal kantuez gain, beste hainbat kulturetako doinuak ere taularatzen ditu bikoteak: Greziakoak, Marokokoak, Irlandakoak... Horrela, euskal musika tresnak, ttun-ttun-a, alboka edo txirula, besteak beste, gitarra akustikoarekin eta Okzitaniako zanfoñarekin nahasten dira emanaldietan.

Ibilbide oparoko musikariak

Duela 10 urtetik gora ekin zion Bidaia bikoteak European zehar kontzertuak eskaintzeari. Ema-

naldi ugari horiez gain, zenbait jaialditan ere hartu du parte azkenaldian, Bordeleko Cornemuse en Fete-n (Frantzia) 2002an, Getxoko Jazzaldian, Bilboko Aste Nagusian eta Bretaniako Vielle a roue jaialdian 2003an, iaz Korsikako Festival des trois cultures-en eta Barzelonako Forum des Cultures-en (Herrialde Katalanak)...

Caroline Phillips (ahotsa, zanfoña eta perkusioa) amerikarra da sortzez. San Frantziskon jaio zen (Kalifornia, AEB), greziar eta iraniar jatorriko familia. 1992an, baina, Euskal Herria etorri zen bizitzera, eta euskaldun berria da. Musika, kantua eta piano klasikoa ikasi zituen AEBetan, eta arte lirikoak Parisen, lau urtez. Gero, jazzan espezializatu zen. 1998an konposatzen hasi zen. Urte berean, Mixel Ducaurekin egin zuen topo Parisko grabazio estudio batean.

Mixel Ducau (ahotsa, gitarra, alboka, saxoa, ttun-ttun-a) Baionan jaio zen. Euskal rockaren aitzindarietakoa da, eta 1975an osatutako Errobi taldearen sortzaileetako bat. Euskal errepertorioaren azterketari ekin zion, alboka, ttun-ttun-a eta gitarra akustikoa ikasiz. Produktore eta konpositore ere bada. Besteak beste, Bernard Lubat konpainiarekin eta Joseba Tapiarekin kolaboratu du.



Caroline Phillips eta Mixel Ducau, emanaldi batean. HITZA

EMANALDIAK ▶

2005eko Gau Giro hasi besterik ez da egin. Mariachi Artizar taldeak eskainitako kontzertuaren ondotik, Bidaia bikotearena izango da egitarauko bigarrena. Irala bitarte egongo da oraindik zer entzunik herrian, era guztietako musika emanaldiak antolatu baititu Udalak. Kontzertuez gain, zinema saioak ere izango dira aukeran.

HILAREN 15A, OSTIRALA

Gonzalo Tejada Trio. Gonzalo Tejada, Iñaki Salvador eta Mikel Andueza, 22:30ean, Fronton kafetegian.

HILAREN 21A, OSTEGUNA

Kolonbiako Balet Folklorikoa. 22:30ean, Euskal Herria plazan.

HILAREN 29A, OSTIRALA

Tolosako Musika Banda. Aparteko kontzertua eskainiko du, 22:30ean, Plaza Berrian.

ABUZTUAREN 9A, ASTEARTEA

'Los chicos del coro'. Zinema kalean. 22:30ean, Amaro zuzoan.

ABUZTUAREN 10A, ASTEAZKENA

'El penalti mas largo del mundo'. Zinema kalean. 22:30ean, Amaro zuzoan.

ABUZTUAREN 26A, OSTIRALA

Julia Leon. Sefardiaren musika emanaldia, 22:30ean, Plaza Berrian.

IRAILAREN 2A, OSTIRALA

Tolosa Session. Tolosako musikariaren jazz emanaldia, 22:30ean, Fronton kafetegian.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR

OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶



Igarondo merkatarien elkarteko zuzendari Raquel Ibañezen eskutik jaso zuen saria Usabiagak. HITZA

Igarondok banatu du jada zozketaren saria

Benito Usabiagak irabazi du 600 euroko erosketa-txekea

IRATXE ETXEBESTE

Herriko jaietan, San Joan Egunean jaso zituen Igarondo Tolosako merkatarien elkarteak bezeroek aurreko egunetan elkarteko kide diren establezimenduetan erosketa egiteagatik haien datuekin betetzeko emandako boletoak, eta zozketa egin zuen jasotako guztien artean. Bada zozketa horretan atera zen boletoa Benito Usabiaga Lasa jaunarena izan zela adierazi dute Igarondoko arduradunek.

Arostegeta kalean dagoen Lizarribar oinetako dendan eman zioten Benito Usabiagari bere datuekin betetzeko boletoa erosketa egin ondoren, eta zozketako saritua izan denez, berak jaso du herriko merkatariek bezeroentzat prestatutako saria: hain zuzen ere, 600 euroko erosketa-txekea. Zorioneko boletoa bete zuen denda berean, Lizarribar oinetako dendan eman zioten Igarondo elkarteko ordezkariak eta zapata denda horretako jabeek merezitako saria, eta, hark, po-



Lizarribar oinetako denda bete zuen boletoa Usabiagak, eta hantxe jaso zuen saria; argazkian, Benito Usabiaga zozketaren irabazlea Lizarribar dendako Leire eta Estherrekin lortutakoa erakusten. HITZA

zarren hartu zuen erosketa-txekea eskuetan.

Igarondo elkarteak sarritan egiten ditu bezeroen artean gisa horretako promozioak, merkatalgune handietara joan beharrean, herritarrek erosketak Tolosan bertan egin ditzaten bultzatzeko. Beraz, adi egon aurrerantzean egiten dituzten

eskaintzei, oraingoan saririk gabe geratu direnek izango baitute aukera beste batean.

Usabiagak elkarteko kide diren edozein dendatan gastatu ahal izango du lortutako erosketa-txekea aurrerantzean; hilaren 30a baino lehen egin behar duela esan dute Igarondokoek. Zorionak, Benito!

GIZARTEA ▶

Ohiko txupinazoak eman die sanferminei hasiera

Eguerditik aurrera ekintza ugari izango dira Plaza Berrian; iluntzean bukatuko da festa



Jende ugari hurbildu zen atzo Plaza Berriko txupinazora. J. GOIKOETXEA

JULEN GOIKOETXEA

Festa giroan hasi ziren atzo Alde Zaharreko sanferminak. Eguerdiko hamabiak jotzearekin batera Alde Zaharreko dendari eta tabernariak bota zuten txupinazoarekin hasi zen jai. Ordurako Plaza Berrian haur ugari ikus zitezkeen zuriz jantzita eta zapi gorriarekin. Suziriarekin batera jaurtiki zituzten globoak eta gozokiak jaso ondoren, Iruñeko sanferminen antzera korrika aritu behar izan zuten haur horiek; baina ez zezenen aurrean, bizkarra berotzen zireten buruhandien aurrean, baizik. Korrikaldiaren ondoren arnasari buelta emateko Nafarroako jotak izan ziren entzungai Plaza Berrian bertaratu ziren guztientzat.

Atzoko ekitaldiekin nahikoa izan ez zutenek gaur izango dute festarekin jarraitzeko aukera Alde Zaharreko Biztanleen Elkarteak antolatatu dituen sanferminetan.

EGITARAUA ▶

Atzo eman zieten hasiera Alde Zaharreko bizilagunek sanferminei, eta gaur emango diete bukaera. Honako ekitaldiak izango dira gaur Plaza Berrian:

GAUR

12:00. Suziriak jaurtiko dituzte eta era berean, Nafarroako jotak entzuteko aukera izango da megafoniatik. Ordu berean, buruhandiek jardungo dute Alde Zaharreko kaleetan zehar.

17:30. Entzierro txikia izango da Plaza Berriatik aterata; Errementari kalea eta Korreo kalea zeharkatu ostean Plaza Berrian bukatuko da berrir. Ondoren, txokolatela banatuko dute parte-hartzaile guztientzat.

20:00. *Pobre de mi* abestuko dute sanferminei behar bezalako bukaera emateko.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldecohitz.info

HITZA guztietan prezio berean

ALEGIA ▶ KULTURA

Antzezle sena sustatuz

San Joan eskolako gaztetxoek 'Martxin txiki eta jentilak' eta 'Ama begira zazu' antzezpeneak taularatuko dituzte etzi, larunbata, 19:30etik aurrera herriko zinema aretoan

NOELIA LATABURU

Buru-belarri dabilta, ekainaren erdialdetik hona, San Joan eskolako gaztetxoak etzi, larunbata, eskainiko duten antzezlana antolatzen. Hitzordua 19:30ean izango da, herriko zinema aretoan, guraso eta herriar guztiak gonbidatu nahi izan dituztelarik.

Haurrak bi taldetan banatu dituzte, adinaren arabera. Txikiak, 7 eta 8 urte bitartekoak, *Martxin txiki eta jentilak* emanaldia eskainiko dute eta 12 urtekoak berriz, *Ama begira zazu* lan ezaguna. Felix Irazustabarrenak azaldu duenez, «gazteak ilusio handiarekin ari dira emanaldia prestatzen».




Antzerki taldeko gaztetxoak herriko zineman atzoko entseguren une batean. NOELIA LATABURU

Helduenekin, haatik, beste-lako helburuak lortu nahi dituzte antzezpenearekin, «kultur arlotik begiratuta». Horrela, gaztetxo hauei antzerkiarekiko piztu zaien grina «bultzatzea» eta hauek «antzerki munduan aukera izan dezatela» lortu nahi dute. Honen bitartez, halaber, pixkanaka Izaskun Lope-tegi zuzendari duen herriko Ttapa antzerki taldean sartu ahal izateko ahaleginak egin ditzatela lortu nahi dute, izan ere berazek «gogotsu daude», Felix Irazustabarrenak azaldu duenez.

Ekimena duela urtebete sortu zen, gazteek kurtsio amaierarako antzerkia burutu zutenean. Arrakasta zela eta, antzerki talde bat osatzea erabaki zuten. Baina ikasturtean zehar ezin izan dituztenez entseguak aurrera eraman, orain eutsi diote duela urtebeteko ekimenari. Alegiako biztanleen aurrean antzerkirako ahalmenak erakusteko aukera izango dute, bada, gaztetxoak. «Polita izango litzateke etorkizunean herrian bertan gustuko duten zaletasuna landu ahal izatea», adierazi du Felix Irazustabarrenak, antzerki taldeko kide ohiak.

Antzele txikiaren irakasle lanetan Nekane Gerrero, San Joan eskolako musika irakaslea aritu da. Gaztetxoenen kasuan (7 eta 8 urtekoak), kurtsio amaierarako jaialdian aurketuriko lana antzeztuko dute, bertso antzerkia, hain zuzen. Bere irakasleak, entseguren lan gogorra burutu ostean, lan hau herriararen aurrean taularatzea merezi duela adierazi du eta horretan ari direla, Karmen jaien gertutasuna aitzaki.



NAZIOARTEKO
KALE ANTZERKI
JAIALDIA
LEKEITIO 2005
Uztailaren 8, 9 eta 10ean

ALEGIA ▶ JAIK

Dena prest Karmen Jaiei hasiera emateko

Zikiro jatea izango da osteguneko ekitaldi nagusia; txartelak igandea arte daude salgai

N. LATABURU

Datorren astean emango diete hasiera Alegiako Karmen jaiei eta dagoeneko motorrak berotzen hasi dira herriararak. Asteazkenean Festa Alternati-boen lehen eguna izango da eta ostegunean, txupinazoarekin, festa ofizialak hasiko dira. Ekitaldiz beteriko agenda prestatu dute Karmenitarako Festa Batzordekoek, janaria, musika, kirola eta jai giroa faltako ez delarik.

Osteguneko ekitaldi nagusia zikiro jatea izango da. 21:00etan egingo dute herriko

plazan. Bertara joateko txartelak erosteko aukera igandea gauean amaituko da. Antolatzailuek jakinarazi dutenez, txartelak amaitzean daude eta, beraz, herri afarian izan nahi duenak ahalik eta azkarren erosi beharko du txartela Etxeberri-Enea, Hilario-Enea, Ixkiña, Kurpil, Letamendia, Arrue-enean eta Jubilatuen tabernan, 15 euroren truke.

Zikiro jatearen ostean, Mikel Markezek doako kontzertua eskainiko du zineman eta erromeria ere izango da, Laja Eguren eta Ziolarren *Azken jazbanaren* eskutik.

TOLOSA ▶

Gaur hasiko da Berazubín paleta txapelketa

ERREDAKZIOA

Gaur 19:00etan hasiko da Berazubín frontoian Tolosa CFk antolatutako 37. Paleta Txapelketa gomazko pilotarekin. Guztira hamabi bikotek eman dute izena eta bi multzotan banatu dituzte. Ligaxka jokatu eta multzo bakoitzeko bi lehenak finalerdietara pasatuko dira.

Gaur Goitia-Otermin Lankunza-Agoteren aurka eta Apeztegia-Maiza Landa-Huegunen aurka ariko dira. Bihar, 18:30ean hasita, hiru partida izango dira: Lankunza-Agote Yugueres-Aldazabalaren aurka, Sarasua-Txapartegi Balerdi-Artolaren aurka eta Lontxo-Nazabal Bengoa-Bengoetxearen aurka. Finalerdiak hilaren 27an jokatu dira eta finalak eta afaria, 29an.

BELAUNTZA ▶ POLITIKA

Sustraiak-en esanei erantzun die alkateak

Jaien eta alkatearen soldataren inguruan esanak erantzun ditu; halaber, probokazioak jasan dituztela salatu du

IÑIGO TERRADILLOS

Edurne Arbelegi Belauntzako alkateak erantzun egin die Sustraiak herri plataformak San Joan jaien aurretik esandakoei.

Sustraiak herri plataformak «beste urte batez, Jai Batzordea beraiek bakarrik osatu eta jai herritar eta parte-hartzaileen ordez beraien gustura moldatu», dutela adierazi zuen. Eta honen harira, herriko alkateak gogorazazi nahi izan du pasa den apirilaren 27an deialdia luzatu zela herritar guztiei maiatzaren 4an Kultur Etxean egin zen bileran parte hartzeke. Bilera horren helburua herriko jaiak antolatzeko batzor-

de bat eratzea zela eta herritar guztiak animatzen zirela parte hartzea jaiak denon artean egin zitezela azaldu du Arbelegi.

Bestalde, alkatearen soldataren igoeraren inguruan kezu azaldu zen Sustraiak plataformak 997,68 euroko (gordina 1.103,83 euro) soldata gehiegizkoa zela salatuz. Horri erantzunez, Itziar Arratibelek hilean irabazten zuen kantitatea hartu dela kontuan adierazi du, eta horren arabera harekiko proportzioa egin dela. Halaber, argi utzi nahi izan du dietarik ez zaizkiola ordaintzen.

Erabakiak udalbatzarretan onartzen direla ere argi gertatzea nahi du alkateak. Izan ere,

alderdi politiko ezberdinekin egingandako bileretan onartzen direla salatu zuen Sustraiak herri plataformak, eta hori ez dela horrela eta bilkurak direla horretarako adierazi dio HITZARI.

Herriko jaietan, hau da, orain bi asteberu izan ziren San Joan jaietan, gertatutakoaren berri ere eman nahi izan du Arbelegi. Jai ofizialetan antolatu zuten herri afarian Sustraiak herri plataformako kideengandik probokazioak jasan zituztela salatu du alkateak. Eta probokazio horiek ez direla une horretara mugatzen gehitu du, izan ere, alkateari berari nahiz senitartekoei iseka egin izana ere salatu du.

BELAUNTZA ▶

Aquapark-era egun pasa antolatu dute

Uztailaren 16an Arcachongo Aqualan Gujan Mestras-era irteera antolatu du Belauntzako Udalak. Goizean, 7:00etan irteerako dira Andre seneko bidegurutzetik, 21:30ak aldera itzutzeko. Izena eman nahi duenak Kultur Etxera jo beharko du, eta uztailearen 7a izango du azken eguna; 12 urtetik beherakoek 16 euro eta gainontzekoek 21 ordaindu beharko dute.

IBARRA ▶

ENA-ren eskaera egin zutenei deialdia

Ibarran ENA tramitatu zuten herritarrei deialdia egiten zaie. Izan ere, informazioa galdu da eta berridonez ahal izateko, tramitazioaren ziurtagiria dutenei 635 009 496 telefono zenbakira hots egiteko eskatzen zaie.

IBARRA ▶ KULTURA

Gau giro zine kluba gaurtik aurrera

Uztaileko astearte eta ostegunetan sei film ikusi ahalko dira San Bartolome plazan

I.TERRADILLOS

Pasa den urtean bezala, aurten ere Ibarrako San Bartolome plazan udan pelikulak ikusteko aukera izango da, izan ere, gaurtik hasita datorren uztailearen 26ra bitarte Gazte Asanbladak antolatuta 6 film prestatu dituzte.

Gau giro zine kluba, hau da, udako zinema, astearteetan eta ostegunetan ikusi ahalko da udaletxearen ondoan dagoen pilotalekuan. Aulkiez hornituta egongo da film guztiak 22:00-etan hasiko dira. Aukeratu dituzten filmei dagokionez adin guztietakoak direla esan daiteke. Halaber, astearteetan gazte txoei zuzenduriko pelikulak izango dira, *Annaluise eta Antton*, *Unibertsolariak munduaren ertzaren bila* eta *Harry Potter eta sorgin harria* filmak hain zuzen. Hauek euskaraz eskainiko dituzte.

Ostegunetan ikusi ahalko direnak gainerako jendeari zuzendurikoak izango dira eta gazteleeraz eskainiko dituzte euskaraz lortzea «zaila» egin baitzaie Gazte Asanbladakoei.

EGITARRAUA ▶

GAUR

'Hotel Rwanda'.

▶ Zuzendaria: Terry George.
▶ Sinopsia: Mille Collines Hotelean NBE-ak babesturiko hutuen eta tutsien arteko bake sinadura gertatu baino lehenago lurraldea aztoratuko duen gertaerak jazoko dira. Hotelean babestu nahiko dute erasotak izango diren tutsiek.

ASTEARTEA 12

'Annaluise eta Antton'.

▶ Zuzendaria: Caroline Link.
▶ Sinopsia: Annaluise eta Antton lagun minak dira. Antton, mutiko behartsua, gaixorik dagoen amarekin bizi da. Annaluisek, bere adiskideari lagundu nahi dio, eta gauez tren geltokira joango da abestuta eta dirua lortzeko.

OSTEGUNA 14

'Jon Q'.

▶ Zuzendaria: Nick Cassavetes.
▶ Sinopsia: John Q. lantegi batean lanean ari den gizon arrunta da. Bere semea



Hotel Rwanda gaur ikusgai. IGA

gaisotu egingo da eta ebakuntza egin beharko zaio, baina ez du dirurik ordaintzeko, eta desesperatuta larrialdi zerbitzuetako langileak bahituko ditu.

ASTEARTEA 19

'Unibertsolariak munduaren ertzaren bila'.

▶ Zuzendaria: Juanjo Elordi.
▶ Sinopsia: Saturrek Plutonon urtebetetze oparia apurtu eta

kontra jarriko zaizkio denak. 'Inork ez banau ikusi nahi, munduaren ertzerantz joan eta hantxe galduko naiz', esango du.

OSTEGUNA 21

'Osama'.

▶ Zuzendaria: Satur Siddiqi.
▶ Sinopsia: 12 urteko neska eta bere amari egoera okertzen zaie talibanak ailegatzean, emakumeak izanik ezingo baitute lanik egin. Neskak mutilaren nortasuna hartuko du Osama izenarekin.

ASTEARTEA 26

'Harry Potter eta sorgin harria'.

▶ Zuzendaria: Chris Columbus.
▶ Sinopsia: Lehen itxurak erakusten duena baino askoz ere gehiago da Harry. Magoa da, baina ez da konturatuko Howarts-etik (munduko mago eskolarik hobereena) gutuna iritsi arte. Harry laster konturatuko da izaki berezi bat dela.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebeka: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 653329

Irura. Osasun zentroa: 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Ordain. Medikua: 655595

Orexa. Medikua: 682228

Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Germikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egotza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ GIZARTEA


Eneko Aizpuru atxilo hartu eta Espainiaren esku utzi dute, ustez

Gertukoek ez dakite ez gertaeraren berririk, ez gaztea non dagoen; Askatasunak, «desagertutzat» jo du bera

JAIONE ASTIBIA

Eneko Aizpuru leitzar gaztea, ustez, Baionan atxilotu omen zuten herenegun arratsaldean 19:00ak aldera, «Frantziako eta Espainiako Poliziak elkarlanean egindako operazioan», eta atzo bertan, Espainiako Poliziaren eskuetan utzi, hainbat komunikabidek hedatu zuten informazioaren arabera, beti ere Espainiako Barne Ministerioari iturriak aipatu. Beste batzuk zabaldu zuten, berri, «oraindik ere ez dute entregatu», baina hori edozein unetan gerta zitekeela zioten. Informazio nahasia eta desberdina eta zehaztasunik gabea, atzo egun guztian zehar jaso ahal izan zena.

Hauxe egiaztatu ahal izan zen informazio hau idazterakotan: bere familiak gertakizunari buruzko inolako berri zuzenik ez zuela, zekitena komunikabideetatik jasotakoa besterik ez zela eta atzo arratsaldean, oraindik ez zekitela beren seni-



Berria jakin zenean, informazio kartelak jarri zituzten herrian. J. A.

deko nongoen: berarekin hitz egiterik ez zutela lortzen besterik ez zekiten. Inork ez zien ez alde bateko ez besteko informazioerik baieztatu eta beren senidearen egonerekin ez jakintasuna zen nagusi. Herrian, berriz, berriarekin informazio kartelak jarri zituzten, eta familiarekin harremanetan, berrien zain zeuden.

Horren harira, Askatasuna-kerak, «Eneko Aizpuru desa-

gertutzat jo» zuen atzo arratsaldean, komunikabideetara igorritako oharrean, bere Ziburuko etxetik falta zela besterik ezin baieztatu omen zekiteelako. Eneko Aizpuru, 24 urteko leitzar, han bizi da eta Baionan egiten du lan. Euskal gazte erakunde independentisten aurka Espainiako Entzutegi Nazionalak eramandako auzian auzipetua dago, bere aurka, atxilotze agindua emana zuelarik.

JOSEBA URKIOLA ▶ KARRAPE IRRATIKO ESATARIA

«Antenan sartuta, momentuak asko inposatzen du»

Kazetaritzako 2. maila egitera doa bera eta Karrape Irratian esatari ariko da uda honetan, uztailean eta irailean

J. ASTIBIA

Joseba Urkiolak 18 urte ditu eta kazetaritza ikasten ari da Leioan, Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza fakultatean. Lehenengo maila txukunbukuatu du eta 2. ari ekiteko zain dagoen bitartean, Karrape Irratian hasi da esatari lanetan, udarako, Unai Zabaletaren ordezkapena egiten.

Astelehenean hasi zinen irratian. Hartu al duzu martxa?

Ari naiz pixkanaka. Mikrofonoren aurrean ez naiz beldurtzen, nahiak ematen dit erreparoa. Oraingoz esatari bakarra ari naiz, baina arlo tekniko hori ere ikasi nahi nuke, behar denerako.

Aurreneko aldia da esatari ari zarela?

Antenan bai. Fakultatean praktikak egiten ditugu, baina kanpora atera gabe, seinalerik emititu gabe. Gainera, aste honetan entzun dut nire ahotza aurreneko irratitik eta nahiko «arraroa» egin zait, egia esan.

Nolatan hasi zara?

Ekainaren 22an nuen azken azterketa eta bezperan Unai Zabaletak deitu ninduen, bere ordezkaria egiteko proposatuz. Oso pozik hartu nuen berria. Hurrengo egunerako entretimendua jarri zidan!! Azterketak bukatu, ongi gainera, eta berehala irratian hasia ez da egunero gertatzen.

Kazetaritzaren zein alor duzu gogokoena?

Nahaste. Ahotsarekin zortea izan dut eta hori izanen litzateke lan tresna gogokoena.



Joseba Urkiola lanean. J. A.

Irratian zerbaitek harritu zaitu?

Antenan sartuta, momentuak asko inposatzen du. Aurretik landua izan arren, seinalean sartu orduko, aldatu egiten da dena. Landutakoaz gain, bapatekotasunak garrantzi handia du. Horrek edo gustura uzten zaitu edo puntu negatiboa ere ematen ahal du.

Zer programazio modu egiten duzue uda honetan?

Musikari tarte gehixeago egiten diogu, uda koloretsuagoa izan ohi baita, estilo desberdinetako musika aukeratuz eta entzuleei kantua eskatzeko aukera ere emanez; *Gazteak kirolean* saioa ere egiteko dugu, neguan irratira etortzerik izan ez dutenekin

Deialdirik egin nahi duzu?

Bai, adibidez gazteei esanien nieke parte hartzeko, irratira deitzeko eta beraiek ere abestiak eta eskatzeko... Eta entzule guztiei ere berdin.

GIZARTEA ▶

«Uda 'gozamen' handiz hasteko...», ikastaro desberdinak gazteentzat

Gozamenez programaren baitan antolatu ditu Prebentzio Programak

J. ASTIBIA

«Uda gozamen handiz hasteko...» dio, Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuko Prebentzio Programak antolatu dituen tailerren iragarkiak. Izan ere Gozamenez programaren baitan egiten baitituzte, hainbat ikastaro, guztiak Leitza eta Aresoko 14 urtetik gorako gazteentzat ez ezik, Goizueta eta Arano, eta Lekunberrikoentzat ere, oporretan daudela baliatuz. Beraiekin elkarlanean aritu dira.

Uztailerako 3 tailer antolatu dituzte, «erabat doan» izanen direnak, eta Leitzan, Goizuetan, zein Lekunberrin eginen

omen dituztenak. Eta non egiten diren, «hara joateko garraraioa bermatuko dugu antolakuntzatik», ziurtatu zuten. Hasteko, hilaren 19, 20 eta 21ean, «sexualitate tailerra» egiten dute, begirale Leitzaldeko eta Irurtzungo Prebentzio Programako arduradunak izanik. Lekunberrin, Gazte-txokotan egiten dute, 10:00etatik 11:30era eta Leitzan, udaletxean, 12:30etik 14:00etara.

«Eta goxo goxo jarraitzeko...», «daztan tailerra» egiten dute hilaren 22an, Leitzan, 10:00-12:00ak bitartean, udaletxean. Bi hauetarako izena emateko epea, hilaren 15 a arte

dute, Maimurren, Goizuetako kafetegian edo Lekunberriko Gazte-txokotan bertan, 14-16 urteko gazteek.

«Lotsarik gabe hobea», jarrarrituz, «irritarria tailerra» egiten dute hilaren 26, 27, 28 eta 29an, Leitzan, 12:00-14:00 bitartean eta Goizuetan, 16:00-18:00, kasu honetan 17 urtetik gorakoentzat. Epea, hilaren 22a da.

Tailer hauetaz guztietaz informazioa emateko, gurasoekin bilera egiten dute uztailearen 18an, 12:00etan, Leitzako udaletxean. Antolatzaileek «garrantzitsutzat» jo zuten bertara joatea.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Iruditan. HITZA banatzen den herrietako ospakizunen argazkiak ikusgai daude gure web orrialdean. Bertan sartu eta klikatu besterik ez da egin behar horiek ikusteko. Oraingoan, Tolosako sanjoanetako 40 argazki baino gehiago daude. Sartu eta ikusi!

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 691 933.

Neska euskaldun. Neska euskalduna behar da, Belauntzan, irailetik aurrera 6 hilabeteko haurra zaintzeko. Orduetgia: 07:30-14:00. 608 77 48 44.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Festa Alternatiboen barruan, hilaren 15ean egingo den bazkarirako txartelak salgai daude betiko tabernetan bost eurotan.

Anoeta. Ping-pong txapelketa 23:00etan Gaztebean. Ondoren asteko asanbladaren.

Ibarra. ENAren tramitazioa egin eta ziurtagiria dutenek deitu 635 00 94 96 telefonora berriro tramitatzeko.

Tolosa. Udaberri dantzari taldeak batzar nagusia egingo du 19:00etan bere lokalean (Igaralde kalea).

Tolosa. Udaberri dantzari taldeak dantza ikastaroak antolatu ditu 2005-06 ikasturterako, Igarondo igerilekuan. Izen-ematea, gaur eta bihar, 17:00etatik 20:00etara, Udaberriren lokalean (Igaralde kalea).

Tolosa. San Fermin jaiek Alde Zaharrean: 12:00etan suziriak, jotak megafoniaz eta buruhandiak; 17:30ean entzierru txikia; ondoren txokolate jatea; eta 20:00etan *Pobre de mi*.

Tolosa. Kainoen jaitsiera egiteko irteera antolatu du astebururako Oargik. Ostiral arratsaldean abiatu, larunbatean Gave de Herrana eta Cat de Pount arroila; eta igandeetan Bitet arroila. Prezioa: 70 euro. 637 83 03 80.

Tolosa. Uztailaren 8an eta 9an Herriarren Partaidetzako Jardunaldiak izango dira udaletxean, iritzia emateko hainbat beharrez. Parte hartzeko 943 69 74 50 telefonora deitu edo partehartu@tolosakoudala.net postara.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria 3. 94 367 09 15.

Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

IRRATIA

Txolarre

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* Tolosako parte-hartze batzordea, Argia astekariak 2.000 ale, UEUko udako ikastaroak, *Irauli uhinak*...

19:00. Errepublikapena.

21:00. *Gure arbasoak* (Irulegi irratia).

22:00. *Gau bero*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Haurtzaindegitik batxilergora

TOLOSA ▶ Lehen eta Bigarren hezkuntza osoa Laskorain Ikastolan burutu duten ikasleek bazkari ederra prestatu diete irakasleek agur gisa



Urte luze hauetan elkarrekin bizitutako esperientziak izan zituzten hizpide bazkalderrek. HITZA



Giro ederrean elkartu ziren 83 ikasle eta 20 irakasle ikasturte bukaerako bazkarian. HITZA

ERREDAKZIOA

Haurtzaindegitik hasi eta batxilergorainoko bide luzea bukatu eta agur gisa irakasleek prestatu eta serbitutako bazkaria. Ez da makala! *Opari* hori izan dute aurten Laskorain ikastolan bere ikasketak amaitu dituzten ikasleek.

«Gehientsuenak bi urterekin hasi ziren ikastolan eta Lehen eta Bigarren hezkuntzak bertan burutu eta selektibitate gaituta, goi zikloko edo unibertsitateko ikasketak hasiko dituzte. Agur gisa bazkari ederra prestatzea irakasle guzti-kin pentsatu genuen», azaldu diete HITZARIK.

Guztira 85 ikasle eta 20 irakasle elkartu ziren ikasturtearen bukaeran, San Joan bezperan, Sakramentinoetan. Sarre-arak, entsalada erusiara, txekor rabiloa saltsan et ijito besoa izozkiarekin janda, laguntasun giro ederra sortu zen. Bertsoak ez ziren faltatu izan. Jarraipena izango al du!

Agurtutako gazte hauek «ikastolako historia eta Tolosaldeko gizarteko etorkizuna» izango direla badakite Laskoraino irakasleek.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Unai Zubeldia Elduaian (Ibarra). Zorionak, tiki! 2 urte gaur! Asko maite zaitugu. Muxu potolo potolo bat.



URTE ASKOAN

Josu. Zorionak eta egun on bat pasa dezazula familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Zorionak, ama.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzek, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!